

**NATALIO PAJARÍN ETA
SORABILLAKO ESKOLA /
NATALIO PAJARÍN
Y LA ESCUELA DE SORABILLA**

Karmele Otaegi Negredo

Lan honen helburua Natalio Pajarín Garagorri maisua ezagutaraztea da, batez ere Sorabillako eskolan bizi zituen egoera bereziak; baita eskola horren historia ere.

Aldi berean, Larreta-Azelaingoan eta Andoaingo Udalaren parte hartzea gai honetan ikertuko da ere.

Natalio Pajarín, eskola, Sorabilla, Azelain, Larreta.

El presente trabajo trata de reivindicar la figura del maestro Natalio Pajarín Garagorri, y los avatares que vivió al frente sobre todo de la escuela de Sorabilla, así como, la historia de esta escuela.

Además se estudia el papel que en todo ello jugarán tanto los Larreta-Azelain, como el Ayuntamiento de Andoain.

Natalio Pajarín, escuela, Sorabilla, Azelain, Larreta.

The purpose of this work is to make Natalio Pajarín Garagorri, teacher, and especially the special situations he lived in the Sorabilla school, and the history of that school.

At the same time, the participation of the Larreta-Azelain and the City of Andoain shall be investigated in this matter.

Natalio Pajarín, school, Sorabilla, Azelain, Larreta.

ESKEMA / ESQUEMA

SARRERA / INTRODUCCIÓN

1. NATALIO PAJARÍN GARAGORRI / NATALIO PAJARÍN GARAGORRI

- 1.1. Datu biografikoak / Datos biográficos
- 1.2. Natalio Sorabillako maisu izan aurretik / Natalio antes de ser maestro de Sorabilla
- 1.3. Natalio Pajarín, Sorabillako maisua / Natalio Pajarín, maestro de Sorabilla
- 1.4. Natalio Larreta ahalguztidunen aurrean / Natalio frente a los todopoderosos Larreta
- 1.5. Natalioren beste alderdi batzuk / Otras facetas de Natalio

2. SORABILLAKO ESKOLA / LA ESCUELA DE SORABILLA

- 2.1. Seroretxearen jabetza / La propiedad de Seroretxea
- 2.2. Eskola / La escuela
- 2.3. Andoaingo Udalaren jarrera, Sorabillako eskolaren itxiera / La actitud del Ayuntamiento de Andoain, el cierre de la escuela de Sorabilla
- 2.4. Eta gero... zer? / Y luego... ¿qué?

3. ONDORIOAK / CONCLUSIONES

4. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA / FUENTES Y BIBLIOGRAFÍA

- 4.1. Artxiboak / Archivos
- 4.2. Bibliografia / Bibliografía

5. ERANSKIN DOKUMENTALA / APÉNDICE DOCUMENTAL

INTRODUCCIÓN

La idea inicial de este artículo era realizar una semblanza de Natalio Pajarín Garagorri, quien fuera maestro de la escuela de Sorabilla durante más de 18 años, pero a medida que se iba desarrollando la investigación, conforme se ha ido profundizando en el conocimiento de las circunstancias que envolvieron sobre todo el *affaire* de nuestro protagonista en relación con la escuela de Sorabilla, ésta ha ido adquiriendo protagonismo en sí misma, puesto que la situación previa de la escuela antes de la llegada de este maestro ayudará a entender muchas de las cosas que le sucederán a Natalio, y además, la propia escuela de Sorabilla sobrevivirá a Natalio, aunque no sea por mucho tiempo.

1. NATALIO PAJARÍN GARAGORRI

Quizá por lo peculiar de su nombre y debido sin duda a su trayectoria vital, Natalio Pajarín ha merecido la atención de diferentes investigadores que han publicado sus trabajos en la revista de estudios históricos Leyçaur, por lo que este artículo aunque deudor de ellos, pretende ahondar un poco más en su figura y en los devenires, conflictos, avatares... que hicieron de él una persona singular.

1.1. Datos biográficos

José Ángel Natalio Pajarín Garagorri nació en San Sebastián el 1 de diciembre de 1840, único hijo del matrimonio formado por Ángel Pajarín Gil (natural de Santa María de Esposende, Orense, nacido en 1792 y fallecido en Lasarte-Oria el 19-12-1860) y M.^a Martina Garagorri Olano (Sorabilla, 20-3-1800 - Aduna 5-9-1879), casados en San Sebastián, el 21 de abril de 1838¹. Fueron sus abuelos paternos José

1 Ángel Pajarín de 46 años y viudo y M.^a Martina Garagorri, de 35, también viuda.

SARRERA

Natalio Pajarín Garagorriren azalpen biografiko xumea egitea izan zen artikulu honen hasierako asmoa, Natalio Pajarín Sorabillako eskolako maisu izan baitzen 18 urtetik gora, baina ikerketa garatu ahala, gure protagonistaren aferak izan zituen gorabeheren ezagutzan sakonduz joan ginen heinean, Sorabillako eskolak berak protagonismoa hartu zuen bere baitan; izan ere, Natalio heldu aurreko eskolaren egoera aztertzerakoan, gero Nataliori gertatutako gauza asko ulertu ahal izango dugu eta eskolak berak, Natalio hil ondoren iraun zuen arren, ez zen denbora luze-rako izango.

1. NATALIO PAJARÍN GARAGORRI

Agian bere izenaren berezitasunagatik eta zalantzarik gabe bere bizitza ibil-bideagatik, Natalio Pajarínek bere lanak Leyçaur ikerketa historikoen aldirian argitaratu dituzten hainbat ikertzaileen arreta merezi izan du, eta, beraz, artikulu honek, horien zordun izan arren, gehiago sakondu nahi izan du bere irudian eta pertsona berezi bihurtu zuten sortzapen, gatazka eta gorabeheretan.

1.1. Datu biografikoak

Jose Angel Natalio Pajarín Garagorri Donostian jaio zen 1840ko abenduaren 1ean, Angel Pajarín Gil (Santa María de Esposende, Ourense, 1792an jaioa eta Lasarte-Orian 1860ko abenduaren 19an hila) eta M.^a Martina Garagorri Olano (Sorabilla, 1800-3-20-Aduna 1879-5-9) senar-emazteen seme bakarra, eta hauek Donostian 1838ko apirilaren 21ean ezkonduak¹. Aitaren aldetik Jose Benito Pajarín

1 Angel Pajarín, 46 urtekoa, alarguna, eta M.^a Martina Garagorri, 35 urtekoa, alarguna ere bai.

Benito Pajarín y Siosaria Gil, y los maternos Miguel Antonio Garagorri Allurralde y Catalina Bernarda Olano Zabala.

Natalio contrajo matrimonio a los 18 años, el 15 de marzo de 1859² en Andoain con Teresa Ariztimuño Legorburu (Oñati, 16-10-1841 - Lasarte-Oria, 23-1-1862), fruto del cual nacieron:

- José Ángel Pajarín Ariztimuño (Lasarte-Oria, 2-3-1860/ 20-3-1861) y
- M.^a Paulina Pajarín Ariztimuño (Lasarte-Oria, 23-6-1861-Andoain, 26-10-1869)

Tras enviudar, trasladó su residencia a Andoain, al contraer segundas nupcias en este municipio el 9 de octubre de 1862 con Josefa Joaquina Iturrioz Garagorri (Andoain, 12-3-1838/6-4-1919), hija de José Iturrioz Echeandía y Ana Josefa Garagorri Galatas, y a la sazón prima segunda suya ya que las madres de ambos eran primas carnales³, y de cuyo matrimonio nacerían:

- Saturnino Pajarín Iturrioz (Andoain, 11-2-1864/ 16-1-1895)
- M.^a Encarnación Dimas Pajarín Iturrioz (Andoain, 25-3-1865/3-1-1871)
- José Antonio Pajarín Iturrioz (Andoain, 1-9-1866/1-10-1867)
- Eustasia Pajarín Iturrioz (Andoain, 30-3-1868), casada en Sorabilla con Felipe Bejino Zabaleta, el 7 de abril de 1891, y única con la que continuará su estirpe.
- Feliz Marcello Pajarín Iturrioz (Andoain, 31-10-1869/11-10-1870)
- Ambrosio Pajarín Iturrioz (Andoain, 8-12-1871/24-2-1873) y
- Catalina Pajarín Iturrioz (Andoain, 3-4-1873)

Como podemos apreciar, en el aspecto personal y familiar, Natalio no tuvo una vida fácil, enviudó a los 21 años, y de los 9 hijos e hijas que engendró únicamente tres alcanzarían la edad adulta, cuatro de ellos morirían a la edad de un año, sobrevivirá a siete de los nueve. ... y su hijo Saturnino, fallecerá a los 30 años edad en la casa de Beneficencia.

1.2. Natalio antes de ser maestro de Sorabilla

Poco o nada sabemos de la infancia de Natalio. Nacido en San Sebastián y bautizado en la iglesia de San Vicente de la Parte Vieja donostiarra, creemos que tuvo vínculos con Sorabilla, ya que su madre era natural de este lugar, y con Andoain,

2 Al ser los contrayentes menores de edad, 18 y 17 años respectivamente, formalizarán junto a sus progenitores capitulaciones matrimoniales ante Juan Antonio Azpiroz, el 8 de marzo de 1859. AGG-GAO PT3281-A 118r-120v.

3 La madre de Natalio era hija de Miguel Antonio Garagorri Allurralde, y la de Josefa Joaquina de Gabriel Garagorri Allurralde, hermanos.

eta Siosaria Gil zituen aitona-amonak, eta amaren aldetik Miguel Antonio Garagorri Allurralde eta Catalina Bernarda Olano Zabala.

Natalio 18 urte zituela ezkondu zen lehen aldiz, 1859ko martxoaren 15ean², Andoainen, Teresa Ariztimuño Legorbururekin (Oñati, 1841-10-16 - Lasarte-Oria, 1862-1-23). Bikotearen seme-alabak izan ziren:

- Jose Angel Pajarín Ariztimuño (Lasarte-Oria, 1860-3-2/1861-3-20) eta
- M.^a Paulina Pajarín Ariztimuño (Lasarte-Oria, 1861-6-23 - Andoain, 1869-10-26)

Alargundu ondoren, Andoainera etorri zen bizitzera, bertan bigarren aldiz ezkondu baitzen 1862ko urriaren 9an Josefa Joaquina Iturrioz Garagorriekin (Andoain, 1838-3-12/1919-4-6), José Iturrioz Echeandia eta Ana Josefa Garagorri Galatasen alabarekin, Natalioren lehengusin-bigarrena zena, bien amak lehengusina propioak zirelako³, eta haien ezkontzakoak izango ziren:

- Saturnino Pajarín Iturrioz (Andoain, 1864-2-11/1895-1-16)
- M.^a Encarnación Dimas Pajarín Iturrioz (Andoain, 1865-3-25/1871-1-3)
- Jose Antonio Pajarín Iturrioz (Andoain, 1866-9-1/1867-10-1)
- Eustasia Pajarín Iturrioz (Andoain, 1868-3-30), Sorabillan Felipe Bejino Zabaletarekin ezkondua, 1891ko apirilaren 7an, eta ondorengoak izango zituen bakarrak.
- Feliz Marcello Pajarín Iturrioz (Andoain, 1869-10-31/1870-10-11)
- Ambrosio Pajarín Iturrioz (Andoain, 1871-12-08/1873-2-24) eta
- Catalina Pajarín Iturrioz (Andoain, 1873-4-3)

Ikus dezakegun modura, Nataliok ez zuen bizitza erraza izan, 21 urterekin alargundu zen, eta sortu zituen 9 seme-alabetatik hiruk baino ez zuten helduaroa ezagutuko, horietako lau urtebete zutela hil ziren; alegia, bederatzietatik zazpi bera baino lehenago hil ziren. Eta Saturnino bere semea 30 urterekin hil zen Erruki-etxean.

1.2. Natalio Sorabillako maisu izan aurretik

Natalioren haurtzaroz ezer gutxi dakigu. Donostian jaioa eta bertako Alde Zaharreko Bizente Deunaren elizan bataiatua, uste dugu Sorabillarekin harremanik izan zuela, bere ama bertakoa baitzen, eta Andoainekin, bertako neska batekin ezkondu zelako, nahiz eta 1859an ezkondu zenean bere gurasoekin Lasarte-Orian

² Ezkongaiak adintxikikoak direnez, 18 eta 17 urtekoak hurrenez hurren, gurasoekin batera ezkontza-itunak egingo dituzte Juan Antonio Azpirozaren aurrean, 1859ko martxoaren 8an. AGG-GAO PT3281-A 118r-120v.

³ Natalioren ama Miguel Antonio Garagorri Allurralderen alaba zen, eta Josefa Joaquinarena Gabriel Garagorri Allurralderena, hau da, anaiarena.

porque se desposa aquí con una muchacha residente en la misma, aunque ya al contraer matrimonio en 1859 reside con sus padres en Lasarte-Oria, lugar donde fallecerán tanto su padre como su primer hijo y su esposa Teresa.

Es en las capitulaciones matrimoniales que firma para su primer matrimonio cuando asegura que *“se está perfeccionando en su oficio de chocolatería, cerería y confitería”*. Profesión la de confitero, que según Pedro Berriochoa⁴, declara ejercer en 1876, mientras su mujer —la segunda— es la serora de Sorabilla, y ya en 1879 quedaba registrado como profesor de instrucción pública. Sin embargo en 1871 en la partida de nacimiento de su hijo Ambrosio dice ser miquelete, y en 1873, en la de su hija Catalina, se le cita como empleado en la fábrica, sin duda en clara referencia a La Algodonera. También hay constancia de que presta dinero en una ocasión, ¿sería el cobrado por su señora por la legítima a la que alude Berriochoa?

Otro de los enigmas que envuelven la figura de Natalio es su filiación política, ya que, según Aitor Garmendia⁵, es registrado como combatiente en las listas de ambos bandos de la segunda guerra carlista. La que le sitúa en las filas carlistas parece en principio más fiable porque fue elaborada en 1876, recién acabada la contienda, mientras que la lista de la adscripción al bando liberal lo fue en 1892, y estar incluido en la misma conllevaba, cuando menos, un claro beneficio, el de eximir a los hijos de los combatientes en el bando vencedor de realizar el servicio militar tal como se recogía en la Ley de 21 de julio de 1876. Pudiera pensarse que Natalio quisiera aparecer en la lista para tratar de librar del servicio militar a su hijo, pero tampoco es seguro que ese fuese el motivo ya que Saturnino, perteneciente al reemplazo de 1884, aunque en principio es declarado apto para el servicio, al año siguiente es clasificado como inútil debido sin duda a la falta del pulgar de la mano derecha así como la inutilidad de los dedos índice y anular.

También debemos contemplar la posibilidad de que fuera así realmente, que efectivamente estuviera en ambas facciones, y que debido a los avatares de la propia guerra cambiase de bando, o fuera obligado a ello... Es algo que no hemos podido esclarecer.


1.3. Natalio, maestro de Sorabilla

Natalio es nombrado maestro de la escuela mixta incompleta⁶ de Sorabilla, al principio accidentalmente, el 1 de diciembre de 1885, por renuncia de su titular, Ángel Garín, comenzando a impartir clases desde el día siguiente. El 18 de enero de 1886 se produce ya su nombramiento en propiedad. En esta profesión y en esta escuela permanecerá el resto de su vida.

4 BERRIOCHOA AZKARATE, P.: “Nekazaritza mundua XIX-XX.eko mende aldaketan” *Leyçaur* 11. pp. 203-204.

5 GARMENDIA AYESTARAN, A.: “Bigarren guda karlista Andoainen”, *Leyçaur*, 5 y A.M.A., 220H/8 y 220H/12.

6 Escuela en la que no se impartían todos los cursos de la enseñanza primaria al completo y en la que los alumnos podían estar agrupados por varios cursos.



bizi zen bera, non bere aita, bere lehen semea eta bere emazte Teresa zendu baitziren.

Lehen ezkontzarako sinatu zituen ezkontza-itutetan esaten du “hobetzen ari dela txokolategintzan, argizarigintzan eta gozogintzan”. Gozogile lanbidean, Pedro Berriochoak⁴ dionaren arabera, 1876an jardun zuen, bere emaztea —bigarrena— Sorabillako serora zen bitartean, eta 1879an jada hezibide publikoko irakasle bezala idazpetuta geratu zen. Hala ere, 1871n, bere seme Ambrosioren jaiotza-agirian, “mikeletea” zela zion, eta 1873an, bere alaba Catalinarenean, fabrikako langile bezala aipaturik dator, zalantzarik gabe, La Algodonerari dagokionez. Behin dirua maileguan utzi zuela ere jasota dago, bere andreak Berriochoak aipatzen duen seniparteagatik kobratutakoa ote diru hura?

Natalioren inguruan beste zalantza bere filiazio politikoari dagokio, Aitor Garmendiaren⁵ arabera, bigarren karlistaldiko bi alderdien zerrendetan borrokalari bezala erregistratuta azaltzen baita. Karlisten aldean kokatzen duenak, hasiera batean, fidagarriagoa dirudi, 1876an egina izan zelako, gatazka amaitu berritan, alderdi liberalarekiko atxikituen zerrenda 1892an egina izan zen bitartean, eta zerrenda horretan sartzeak, gutxienez, onura argi bat zekarren, soldaduska egiteko irabazlearen alde borrokalarien semeek salbuestekoa, 1876ko uztailaren 21eko Legean jasotzen zen bezala. Pentsa liteke Nataliok bere semea soldaduskatik libratzeko zerrendan ikusi nahi zuela, baina ez da ziurra hori izatea arrazoia; izan ere, Saturnino 1884ko txandakoa da eta nahiz eta hasiera batean zerbitzurako gaitzat eman zuten, hurrengo urtean ezindutzat jo zuten, eskui-neko eskuko hatz lodia falta zuelako, eta hatz erakusleak eta nagiak alferrika-koak zituelako.

Aintzat hartu behar dugu ere, agian bai bi alderdietan ibili zela eta gerraren gorabeherak eraman zutela alderdi batetik bestera igarotzera, akaso horretara behartuta. Hori argitu ezin izan dugun kontua da.

1.3. Natalio, Sorabillako maisua

Natalio Sorabillako eskola misto osagabea⁶ maisu izendatu zuten, behin behinenez, 1885eko abenduaren 1ean, Angel Garínek, titularrak, plazari uko egin ziolako, eta hurrengo egunetik aurrera eskola ematen hasi zen. 1886ko urtarrilaren 18an jabetzan izendatu zuten. Lanbide honetan eta eskola honetan egongo da bere bizitza osoan.

4 BERRIOCHOA AZKARATE, P.: “Nekazaritza mundua XIX-XX.eko mende aldaketan” *Leyçaur*, 11, 203-204 orr.

5 GARMENDIA AYESTARAN, A.: “Bigarren guda karlista Andoainen”, *Leyçaur*, 5, eta A.U.A., 220H/8 eta 220H/12.

6 Eskola horretan ez ziren ematen lehen hezkuntzako maila guztiak, eta hainbat mailatako ikasleak batera egon zitezkeen.



Sorabillako bista orokorra. Iturria: A.U.A., FO, 7472.

Vista general de Sorabilla. Fuente: A.M.A., FO, 7472.

El 2 de noviembre de ese año, comienza asimismo a impartir las clases de adultos, generalmente obreros de la fábrica, que solían durar unos 5 meses y que se impartían de 6 a 9 de la tarde-noche, por lo que ante la oscuridad que reina en esas horas, solicitaba la luz al Ayuntamiento todos los años, peticiones que normalmente eran atendidas, cuando las clases se desarrollaban de noviembre a marzo, pero en ocasiones, como cuando el 20 de mayo de 1894 lo solicita y la respuesta municipal es preguntar si ha abierto a petición de algunos obreros de la fábrica. Ante la respuesta afirmativa del maestro el Ayuntamiento acuerda *“que los días son a la fecha muy largos, que los mozos que acuden a la escuela son muy pocos y pueden por sí pagar el gasto de luz por lo que no ha lugar a lo que solicita”*.

1886ko azaroaren 2an, era berean, helduen eskolak ematen hasi zen. Lantegiko beharginak izan ohi ziren, 5 hilabete inguru irauten zuten eskolek eta arratsalde-gau partean 6etatik 9etara ematen ziren. Hori dela eta, ordu horietan ilunabarra baitzen, Udalarari argia eskatzen zion urtero. Normalean, eskolak azarotik martxora bitartean ematen ziren, baina batzuetan, adibidez, 1894ko maiatzaren 20an eskaera egin eta Udalaren erantzuna izan zen galdetzea ea eskolak hasi nahi ote zituen lantegiko zenbait langilek eskatu zituztelako. Maisuaren baiezko erantzunaren aurrean, Udalak honako hau erabaki zuen: *“Egunak oso luzeak dira, eskolara joaten diren mutilak oso gutxi dira eta berez ordain dezakete argi-gastua; beraz, ez da bidezkoa eskatzen duena”*.

Nataliok 1901ean proposatu zuen nolabait konpentsatzea aurreko azken urte batzuetatik aurrera ematen ari zen gau-eskola horiek; izan ere, *“Eskatzaileak urteetan zehar emandako eskolek emaitza onak eman dituzte, hala frogatuko dizut zuri hala nahi baduzu, baina gurasoak edo bertaratu diren horietaz arduratu direnak ez dute neke handirik hartu ordainsariak egin ote diren jakiteko, eta nekaturik nago ikusirik haien alde egindako sakrifizioagatik zer nola ordaintzen didaten”*. Gure maisuak Udalaren partetik ordainsariren bat eskatzen du, baina eskaera ezeztatua izan zen.

Nataliok auzokide batzuen kritikei aurre egin behar izan zien, 1887an kezu baitziren eskolak utzita zituelako eta semeak ordezkatu zuelako, *“Aitaren trebetasunik ez duelako”*, diotenez, prestakuntza-maisua izan arren ere, 1884ko zerrenda militarreko orrian eta 1887ko Biztanleen Erroldan agertzen den bezala, Saturnino Pajarín Iturrioz, *“lehen hezkuntzako irakaslea”*, ezkongabea, 24 urtekoa, eta *“ez dihardu”* aipamenarekin. Bere heriotza-agirian, maisua dela azaltzen da ere. Gainera, hezibide publikoko ikuskatzaileak, 1889ko urtarrilaren 30ean, aktan jasota utzi zuen bere ustez Natalioren metodoak ez zirela egokiak: *“... eskolak ez dauka beharko lukeen ordena eta diziplinarik, eta maisuak, gaitasun-ziurtagiria duenak, ez du irakaskuntzako ikasgaien sailkapen agiririk, eta ez ditu bertan erabiltzen agindu pedagogikoetan aurreikusitako metodo eta prozedura egokiak eta ez ditu ezagutzen bere ikasleen ahalmen hirukoitzei buruz hezkuntzaren lege orokorrak, eta, horren ondorioz, hezibidea mekanikoagoa da arrazional eta hezitzailea baino, eta gainera eskola horren eragozpena da bertaratzten diren neskek ez dutela heziketarik jasotzen etxeko lanen atal garrantzitsuan”*. Nataliori kritikak, bai, baina nolabait kontraesankorrek; izan ere, auzokoek maisuaren *“trebetasuna”* deritzotena, ikus-kariaren iritzi, ez da oso pedagogikoa.

Andoaingo Udalaren jarrerak ere ez du askorik lagunduko; izan ere, Nataliok eskola hobetzeko egiten duen edozein eskaera, izaera ekonomikoa baldin bada, mesfidantzaz ikusten da, eta, gehienetan, ezezkoa jasotzen du erantzun modura, adibidez, 1895ean gobernuaren Errege Agindu baten berri izan zue-nean, non esaten baitzen *“udaletxeetako ateetan eta Nazioko eskola guztietan jar bedi koadro bat txorien babes gomendatzen duena”*, eta hori erostea eskatu zuen baita Baroja etxeak saltzen zuela aipatu. Eta erantzuna ezezkoa izan zen.

En 1901 Natalio propone se le compense de alguna manera esas clases nocturnas que desde hace años viene impartiendo ya que *“Las clases dadas durante los años que indica el relatante han dado resultados satisfactorios como se lo probará a V.S. si así lo deseara más en cambio a la remuneración no se han cansado mucho los padres ó encargados de los que han asistido y canso de ver el pago que vienen haciendo para el sacrificio que se hace por ellos...-”* Solicita nuestro maestro alguna aportación por parte del Ayuntamiento, petición que es denegada.

Natalio tuvo que hacer frente a las críticas de algunos vecinos que en 1887 se quejaban de que tenía abandonadas las clases y que era sustituido por su hijo, que según dicen *“no tiene la habilidad del padre”*... aunque sea también maestro de formación como aparece consignado tanto en su hoja de alistamiento militar de 1884, como en el Padrón de Habitantes de 1887, Saturnino Pajarín Iturrioz, de 24 años, soltero, aparece como *“maestro de 1ª enseñanza”*, y con el apunte de *“No ejerce”*. En su acta de defunción, también dice que es maestro. Además el Inspector de Instrucción pública, el 30 de enero de 1889 deja constancia en el acta de que en su opinión los métodos de Natalio no son los adecuados: *“...la escuela no presenta el orden y la disciplina que fueran de desear y el Maestro, que posee certificado de aptitud no tiene hecha la de clasificación de las materias de enseñanza, ni emplea en ella los acertados métodos y procedimientos prevenidos en los preceptos pedagógicos, desconociendo las leyes generales de la educación de las triples facultades de sus alumnos, lo cual motiva que la enseñanza sea más mecánica que racional y educativa teniendo además dicha escuela el inconveniente de que las niñas que concurren no se instruyan en el importante ramo de las labores”*. Críticas a Natalio, sí, pero de alguna manera contradictorias, ya que lo que los vecinos califican de *“habilidad”* del maestro, el inspector lo considera escasamente pedagógico.

Tampoco ayuda mucho la actitud del Ayuntamiento de Andoain, ya que cualquier solicitud de Natalio de mejorar la escuela, si es de índole económico, es mirada con recelo y recibe, la mayor parte de las ocasiones, la negativa por respuesta, como cuando en 1895 enterado de una Real Orden del gobierno en la que se dice que *“en las puertas de los Ayuntamientos y en todas las escuelas de la Nación se ponga un cuadro recomendando la protección de los pájaros”*, solicita su compra informando que los venden en la casa de los Baroja. Y la respuesta es negativa.

1.4. Natalio frente a los todopoderosos Larreta

Pero lo que realmente ha hecho que un maestro de escuela como Natalio Pajarín pase a la posteridad es el enfrentamiento que sostuvo primero con Juan Bautista Larreta a cuenta de los locales que habitaban el maestro y su familia en la casa Seroretxea, donde se ubicaba la escuela, y después con el Ayuntamiento, en relación también al mismo tema. El conflicto es recogido tanto por Pedro Berriochoa como por Estibaliz González, y puede resumirse de la manera siguiente.

1.4. Natalio Larreta ahalguztidunen aurrean

Natalio Pajarín bezalako eskola-maisu bat historiaren orriotara igarotzea eragin duena zera izan da: lehenik, Juan Bautista Larretarekin izan zuen liskarra eskola zegoen Seroretxea etxeko lokalen kontura, non maisua eta bere familia bizi baitziren, eta gero Udalarekin, gai beraren inguruan ere. Gatazka Pedro Berriochoak eta Estibaliz Gonzálezek jasotzen dute, eta honela laburbil daiteke:

1886an Loreto Arzac-ek, Juan Bautista Larretaren amak, seroraren etxea alokatu zion Andoaingo Udalari urtean 30 pezetaren truke. Ordutik han bizi zen Pajarín-Iturrioz familia.

16 urteren ondoren, 1902ko urriaren 21ean, Larreta jauna Pajarinengana aurkeztu zen herriko *ospetsuekin* batera: Manuel Olariaga, José Moleda eta José Antonio Amondarain, eta Pajarín eta bere sendia bere etxetik “bota” egin zuten.

Nataliok 16 urte horietako alokairua ordaintzeko eskatu zion Udalari; izan ere, etxea utziarazteko modu txarrak ikusita, ordura arte *okupa* gisa bizi izan zela lirudike. Tolosako epaitegira jo zuen, eta bertan doako justizia jaso zuen bere pobrezia-egoeragatik. Hasiera batean arrazoia eman zioten arren, azkenik Andres Perez epaileak Udalaren aldeko epaia eman zuen, ebatziz Pajarinek ezin zuela ezer erreklamatu, etxe horretan Larretatarren eskuzabaltasunari esker bizi izan zelakoan.

Udalak etxe bat eskaini zion Larramendi kalean, baina Pajarinen iritziz eskolatik oso urruti zegoen etxebizitza hori. Bitartean, Pajarín eta bere familia Sorabillako erretoretxean bizi izan ziren. 1903ko martxoan, familia osoa Larramendi kaleko 27. zenbakira joan zen bizitzera.

Baina ez ziren hor amaitu larretatarrekin izandako arazoak; izan ere, 1903ko martxoaren 29an, etxean obrak egin behar izatearen aitzakiarekin, eskolako ateko sarraila eta mahaiko tiraderak behartu zituzten.

Baina nor hobe bere burua defenditzeko Natalio bera baino. Horrela, Udalari zuzendutako 1903ko azaroaren 5eko idazkian, besteak beste, honako hau dio:

“No es cierto que el Ayuntamiento tiene alquilada tan solo la sala escuela; treinta pesetas anuales en concepto de renta módica para una salita reducida y mala en este barrio de Soravilla no se concibe; sería una exageración; y sí, se comprende dicho precio por renta de toda la casa que por cierto es vieja y pequeña...”

...Obligan acatamiento las decisiones de la Corporación, cuando son justas y legales, más cuando demuestran arbitrariedad consciente o nacida de la ignorancia, las leyes amparan al perjudicado admitiendo los recursos que eleven a la superioridad pidiendo justicia...

...Los colonos de la Sra. Vda. de Larreta presentaron una solicitud pidiendo la reinstalación de la escuela en la casa Seroral de Soravilla donde siempre se había conocido, añadiendo que merced a las gestiones hechas contaban con la adquiescencia de los propietarios de la

En 1886 Loreto Arzac, madre de Juan Bautista Larreta, alquiló la casa de la serora por 30 pesetas anuales al Ayuntamiento de Andoain, desde entonces allí vivía la familia Pajarín.

Después de 16 años, el 21 de octubre de 1902, Larreta se presenta ante Pajarín acompañado de los *notables* del pueblo: Manuel Olariaga, José Moleda y José Antonio Amondarain y “despide” a Pajarín y su familia de su casa.

Natalio solicitará al Ayuntamiento que le abone el alquiler de esos 16 años ya que por las malas maneras del desalojo parece que hasta entonces hubiera vivido de *okupa*. Acudió al juzgado de Tolosa, donde recibió justicia gratuita debido a su situación de pobreza, y aunque en primera instancia se le dio la razón, el juez Andrés Pérez falló a favor del Ayuntamiento diciendo que Pajarín no podía reclamar nada ya que había vivido en esa casa gracias a la generosidad de los Larreta.

El Ayuntamiento le ofreció una casa en la calle Larramendi, pero Pajarín entendía que estaba muy lejos. Entretanto Pajarín y su familia estuvieron viviendo en la casa rectoral de Sorabilla. Es en marzo de 1903 cuando toda la familia se traslada a la calle Larramendi, n.º 27.

Pero no acabaron ahí los problemas con los Larreta, ya que el 29 de marzo de 1903 con la excusa de tener que hacer obras en casa, habían forzado la cerradura de la puerta y de los cajones de la mesa... de la escuela.

Pero quién mejor que el propio Natalio para ejercer su defensa. De esta manera, en escrito de 5 de noviembre de 1903, dirigido al Ayuntamiento, dice, entre otras cosas, lo siguiente:

“No es cierto que el Ayuntamiento tiene alquilada tan solo la sala escuela; treinta pesetas anuales en concepto de renta módica para una salita reducida y mala en este barrio de Soravilla no se concibe; sería una exageración; y sí, se comprende dicho precio por renta de toda la casa que por cierto es vieja y pequeña...”

...Obligan acatamiento las decisiones de la Corporación, cuando son justas y legales, más cuando demuestran arbitrariedad consciente o nacida de la ignorancia, las leyes amparan al perjudicado admitiendo los recursos que eleven a la superioridad pidiendo justicia...

...Los colonos de la Sra. Vda. de Larreta presentaron una solicitud pidiendo la reinstalación de la escuela en la casa Seroral de Soravilla donde siempre se había conocido, añadiendo que merced a las gestiones hechas contaban con la adquiescencia de los propietarios de la mencionada casa cuyos locales se hallaban dispuestos a cederle por una pequeña retribución.

...La Sra. Vda. de Larreta...en respuesta a una comunicación del Ayuntamiento de Andoain y en consonancia con lo que manifestaron

mencionada casa cuyos locales se hallaban dispuestos a cederle por una pequeña retribución.

...La Sra. Vda. de Larreta... en respuesta a una comunicación del Ayuntamiento de Andoain y en consonancia con lo que manifestaron sus colonos, **probablemente por su orden**⁷, pasó un oficio diciendo: contestando a la atenta que con fecha 16 de noviembre de 1886 me dirigió VS, debo manifestarle: que por el alquiler de la casa Seroral de Soravilla, propiedad de mis hijos y mía...⁸. Así se ha seguido durante 16 años sin interrupción, más D. Juan B. Larreta actual propietario de la mencionada casa Seroral exige **por motivos que el sabrá** se desocupe la habitación de Maestro, en el término de treinta días.

*El maestro recurrió al Ayuntamiento como arrendatario que es, dando conocimiento de la pretensión del Sr. Larreta y el Ayuntamiento en lugar de defender sus derechos y de evitar un atropello, ofuscado sin duda, ayuda, protege al injusto, abandonando a un empleado municipal, a un maestro que en nada absolutamente ha faltado*⁹.

Natalio zorrotza da alokairuaren zenbatekoa eta xedea zalantzan jartzen ditueanean; izan ere, Loreto Arzac-en eskaintza-idazkian bertan etxeaz hitz egiten da, osoaz ulertzen da, eta ez gela bakar bati buruz, eta maisuak egiatasun berbera azaltzen du hala larretatarren interes ezutuak salatzen ditueanean nola Udalak bere eginbeharren utzikeria eta Azelainen familiaren aurrean erakusten duen mirabeberia eta lausengukeria salatzerakoan.

Hala ere, bidezkoa da aitortzea udalbatza osoa ez zela larretatarren ondoan lerrokatu eta epaiari jarritako errekurtsioa ez zela polemikatik kanpo egon; izan ere, hiru zinegotzi maisuari arrazoia ematen zion epaiari errekurtsioa jartzearen aurka agertu ziren: Mujica, Mendizabal eta Erasquin, eta beraiek "gutxiengo" izena hartu zuten, beste bostek osatzen zuten "gehiengoari" kontrajarrita: Urrutia, Sorondo, Echeveste, Esnal eta Cipitria; eta boto kopuru horien bidez erabakiko da lehen epaiari errekurtsioa jartzea. Banaketa argia izan zen, eta idatzietan elkar gurutatu zituzten salaketan doinuak hala erakusten du:

- 1903ko urriaren 8ko idazkian, Jose Antonio Mujicak, Antonio Erasquinek eta Candido Mendizabalek sinatutakoan, honela aipatzen dute gaia: "... asunto de la habitación del maestro de Soravilla, asunto que toda persona de criterio regular conoce en Andoain a fondo". Baieztapen horrek adierazten du kasuak eragina izan zuela garaiko gizarte andoaindarrean.
- Ezequiel Urrutia, Juan Bautista Sorondo, José Cruz Echeveste, José Esnal eta José Cipitriaren erantzuna, 1903ko urriaren 15ekoa, honako hau izan zen:

7 Beltzez nabarmendurikoa gurea da.

8 Deigarria da bai Loreto Arzac-ek sinaturiko eskutitza hau, bai Natalioren jokabidea salatzen zuten hiru auzokideena, pertsona berberak idatziak izatea.

9 A.U.A., 57H/2.

*sus colonos, **probablemente por su orden**⁷, pasó un oficio diciendo: contestando a la atenta que con fecha 16 de noviembre de 1886 me dirigió VS, debo manifestarle: que por el alquiler de la casa Seroral de Soravilla, propiedad de mis hijos y mía...⁸. Así se ha seguido durante 16 años sin interrupción, más D. Juan B. Larreta actual propietario de la mencionada casa Seroral exige **por motivos que el sabrá** se desocupe la habitación de Maestro, en el término de treinta días.*

El maestro recurrió al Ayuntamiento como arrendatario que es, dando conocimiento de la pretensión del Sr. Larreta y el Ayuntamiento en lugar de defender sus derechos y de evitar un atropello, ofuscado sin duda, ayuda, protege al injusto, abandonando a un empleado municipal, a un maestro que en nada absolutamente ha faltado"⁹.

Es certero Natalio al poner en solfa la cuantía y objeto del alquiler, ya que en el propio escrito de ofrecimiento de Loreto Arzac se esta hablando de la casa y no de una sola dependencia, y no menos veracidad ofrece el maestro al denunciar tanto los intereses ocultos de los Larreta, como la dejación de sus deberes y el servilismo, la pleitesía que demuestra el Ayuntamiento ante la familia de Azelain.

Sin embargo, es de justicia reconocer, que no toda la corporación se alineó al lado de los Larreta ni el recurso a la sentencia estuvo exento de polémica, de hecho tres concejales se posicionan en contra de recurrir la sentencia que daba la razón al maestro: Mujica, Mendizabal y Erausquin, denominándose ellos mismos "minoría", en contraposición a la "mayoría" que conformaban los otros cinco: Urrutia, Sorondo, Echeveste, Esnal y Cipitria, y con cuyos votos se decidirá el recurso a la primera sentencia. La división fue clara y el tono en el cruce de acusaciones en estos escritos así lo demuestra:

- En el escrito de 8 de octubre de 1903, firmado por José Antonio Mujica, Antonio Erausquin y Cándido Mendizabal se refieren así a la cuestión: "...asunto de la habitación del maestro de Soravilla, asunto que toda persona de criterio regular conoce en Andoain a fondo". Afirmación que denota la repercusión que el caso tuvo en la sociedad andoaindarra del momento.
- La respuesta de Ezequiel Urrutia, Juan Bautista Sorondo, José Cruz Echeveste, José Esnal y José Cipitria de 15 de octubre de 1903, fue la siguiente: "...(*Pajarín*) no tendría derecho, porque la obligación impuesta por la Ley de Instrucción Pública es la de proporcionar a los maestros habitación cómoda y capaz; esta obligación la ha cumplido el Ayuntamiento por la generosidad de D^a Loreto Arzac y su hijo Dn. Juan B. de Larreta, quienes se han subrogado

7 La letra en negrita es nuestra.

8 Llama la atención el hecho de que tanto esta carta firmada por Loreto Arzac, como aquella en que algunos vecinos, tres, protestaban por la conducta de Natalio, estén escritas por la misma persona.

9 A.M.A., 57H/2.

“... (Pajarín) no tendría derecho, porque la obligación impuesta por la Ley de Instrucción Pública es la de proporcionar a los maestros habitación cómoda y capaz; esta obligación la ha cumplido el Ayuntamiento por la generosidad de D^a Loreto Arzac y su hijo Dn. Juan B. de Larreta, quienes se han subrogado en esta obligación del Ayuntamiento y han cedido gratuitamente en esos diez y seis años habitación al Sr. Pajarín”.

- 1903ko urriaren 22ko idazkian, Jose Antonio Múgicak eta Antonio Erausquinek sinatutako kontrarreplikak honako hau argudiatzen du: *“... imposibilidad de sostener en buena ley que la generosidad de D^a Loreto Arzac y de Dn. Juan Bautista Larreta, hayan subrogado al Ayuntamiento de Andoain, en la obligación de suministrar casa para el maestro del barrio de Soravilla. No hay ni ha existido nunca en el archivo municipal de esta villa ningún documento de que los referidos Sres. Arzac y Larreta se tomaran semejante sacrificio en beneficio de la villa, ni que esta declinara en ellos ninguna de las obligaciones que la ley impone a los ayuntamientos”*

Harritzekoa da zinegotzi batzuek larretatarren alde egiten duten defentsa, eta harrigarria da eskola maisuaren gelatik bereizten saiatzea, dauden biztanleen errolda guztiek serora-etxean kokatzen dituztenean maisuak eta haien familiak.

1. taula Seroretzeko biztanleak

Urteak	Biztanleak	Familiaburuaren lanbidea
1857-1873 ¹⁰	Jose Enrique Amantegui eta familia	Maisua
1879-1882	Jose M. ^a Aguirre ¹¹	Maisua eta idazkaria
1886-1902	Natalio Pajarín eta familia	Maisua
1903	Hutsik	
1904-1907	Juan Bta. Eguzquiza eta familia	Maisua

Sorabillako serora-etxe honetan bizi ziren, beraz, maisuak eta haien familiak¹², Natalioren aurretik eta ondoren. Larretaren jarrera hori eragin duten arrazoiak zeintzuk izan litezkeen ihes egiten digu une honetan, ez ditugu ezagutu; agian gorrotoa? Beste arrazoi batzuk? Egia esan, deigarria da Loreto Arzac-ek 1886ko abenduan serora-etxearen alokairuaren prezioa ezartzeko sinatu zuen eskutitza ida-

10 Litekeena da 1844tik aurrera izatea, bere lehen semea jaio zen egunetik.

11 Jose M.^a Agirre Sorabillako Udaleko idazkari da gutxienez 1879ko uztailaren 5etik 1882ko uztailaren 3ra. Ez dakigu zenbat denboraz egin zituen idazkari eta aldi berean maisu lanak. Egia esan, plazaren jabea Angel Garin zen oraindik; 1885ean uko egin zion eta, ondorioz, Natalio izendatu zuten.

12 Loreto Arzacek honako hau dio bere idazkian: “Nahiz eta Udalak ez zuen lehenago inolako errentarik ordaintzen, egia da jabeak etxebizita hartuta zuen Maisuarengandik gauza edo puska bidezko errenta jasotzen zuela”.

en esta obligación del Ayuntamiento y han cedido gratuitamente en esos diez y seis años habitación al Sr. Pajarín”.

- La contrarréplica en escrito de 22 de octubre de 1903, firmado por Jose Antonio Múgica y Antonio Erausquin argumenta la: “...imposibilidad de sostener en buena ley que la generosidad de D^a Loreto Arzac y de Dn. Juan Bautista Larreta, hayan subrogado al Ayuntamiento de Andoain, en la obligación de suministrar casa para el maestro del barrio de Soravilla. No hay ni ha existido nunca en el archivo municipal de esta villa ningún documento de que los referidos Sres. Arzac y Larreta se tomaran semejante sacrificio en beneficio de la villa, ni que esta declinara en ellos ninguna de las obligaciones que la ley impone a los ayuntamientos”.

Resulta cuanto menos extraña la defensa que algunos concejales hacen de los Larreta, e inaudito tratar de disociar la escuela de la habitación del maestro cuando todos los padrones de habitantes existentes sitúan a los maestros y sus familias en la casa seroral.

Tabla 1
Moradores de Seroretxea

Años	Habitantes	Profesión del cabeza de familia
1857-1873 ¹⁰	José Enrique Amantegui Uranga y familia	Maestro
1879-1882	Jose M. ^a Aguirre ¹¹	Maestro y secretario
1886-1902	Natalio Pajarín Garagorri y familia	Maestro
1903	Vacía	
1904-1907	Juan Bta. Eguzquiza Balda y familia	Maestro

En esta casa seroral de Sorabilla vivirán pues los maestros y sus familias antes¹² y después de Natalio. Las causas que motivan esta actitud por parte de Larreta en este momento se nos escapan, no hemos llegado a conocerlos, ¿animadversión? ¿otras razones? Lo cierto es que ya llama la atención que la mano que redacta el escrito que firma Loreto Arzac estableciendo el precio del alquiler de la casa seroral en diciembre de 1886, sea la misma que redacta la queja contra Natalio en

¹⁰ Aunque es probable que sea desde 1844, fecha de nacimiento de su primer hijo.

¹¹ Jose M.^a Agirre es secretario del Ayuntamiento de Sorabilla por lo menos desde el 5 de julio de 1879 al 3 de julio de 1882. No sabemos cuanto tiempo compagino este oficio con el de maestro. Lo cierto es que el titular de la plaza sigue siendo Angel Garin, que renuncia en 1885, cuando se nombra a Natalio

¹² Loreto Arzac dice en su escrito: *Si bien el Ayuntamiento no satisfacía antes renta alguna, es lo cierto que percibía el propietario renta en especie del Maestro que la ocupaba...*

tzi zuen eskuak 1887ko otsailean Natalioren aurkako kexa idatzi zuen berbera izatea, eta hiru gurasok baino ez dute sinatzen eskutitz hori; horietako bi larretatarren maizterrak dira... Kasualitatea?

Bestalde, Nataliok bere etxebizitza Larramendi kalera aldatzeari uko egin izanaren arrazoietakoa bat aurkitu dugu, urruti zegoela argudiatuz. Gehiegizko pisuak eta ezkerreko zangoan zuen gaixoak eragozten zioten, zainbilduen isipula baitzuen. Gehiegizko pisuaren datua ezagutu dugu, baita maisua eskolara gurdiz eramaten zutela ere, haren ondorengoan ahotik¹³.

Behin betiko epaia, Udalari arrazoia eman eta Natalio Pajarini erreklamatzeko zituen 1.280 pezeta ordaintzetik salbuesten zuena 1903ko abenduaren 14koa da; handik hamabi egunera, abenduaren 26an, Natalio hil egin zen, 63 urte zituela.

1.5. Natalioren beste alderdi batzuk

Auziaren aurretik, badirudi Nataliok Udalarekin zuen harremana ona zela; izan ere, 1901eko uztailaren 2an, laguntza ekonomikoa eskatu zuen Ormaiztegiko baiñuetan, medikuak aginduta, zuela 5 urtetik pairatzen zuen zainbilduetako isipula sendatzeko. Hurrengo eguneko saioan erantzungo zaio eskaera horri eta 25 pezetako laguntza emango zaio bidaiak eragin diezazkiokeen gastuetarako.

Natalio Pajarinen beste alderdi bat eskribauarena da. Nataliok ahulenen zerbitzura jartzen zuen bere luma; izan ere, Erruki Etxearen Ospitalean sartzeko eskaera gehienak berak idazten ditu, eta "beste baten eskuz" epigrafean eskaera egiten duenaren izena jartzen du aurretik. Ziur asko, zeregin edo izapide horiengatik ez zien kobratuko ongintza publikoan sartzea eskatzen zutenei mantenerik ez zutelako.

Kasuren batean, Sorabillako apaizarekin batera, babesik gabe dauden haur batzuen erietxeratzea eskatuko du. 1896an gaude. Udalak onartu egin zuen apaizaren eta Sorabillako "sakristauaren" eskaera. Natalioren beste lanbide bat, edo, beharbada, seroraren senarra izateagatik eman zioten titulua.

2. SORABILLAKO ESKOLA

2.1. Seroretxearen jabetza

Seroretzeari buruzko larretatarren auzia ez da berria; izan ere, 1874an eskola itxita zegoen arrazoi beragatik: *"...a los pocos días de haber tomado posesión de la escuela de Soravilla, D. Agustín Garin, se presentó contra dicho maestro un interdicto de recobrar por la Sra. D^a Loreto Arzac e hijos en concepto de propietarios*

13 M.^a Dolores Loidi Flamariquek emandako informazioa, Natalio Pajarinen hereniloba.

febrero de 1887 y que sólo firman tres padres, dos de los cuales son colonos de los Larreta ¿casualidad?

Por otro lado, hemos averiguado una de las razones que explicarían la negativa de Natalio a trasladar su domicilio a la calle Larramendi, aduciendo que estaba lejos. Estribaría en sus dificultades de movilidad por sobrepeso y debido también a la enfermedad que sabemos que padecía en su pierna izquierda, ya que sufría erisipela varicosa. Hemos conocido el dato del sobrepeso y de que el maestro era trasladado en carro a la escuela, por las informaciones facilitadas por sus descendientes¹³.

La sentencia definitiva que da la razón al Ayuntamiento y le exonera de pagarle a Natalio Pajarín las 1.280 pesetas que reclamaba, y le impone las costas, es de 14 de diciembre de 1903; apenas doce días después, el 26 de diciembre fallecería Natalio.

1.5. Otras facetas de Natalio

